

ASTE NAGUSIKO SU ARTIFIZIALEN IV. ARGAZKI LEHIAKETA IV CONCURSO FOTOGRAFICO FUEGOS ARTIFICIALES SEMANA GRANDE

OINARRIAK

PARTE HARTZAILEAK

Nahi duten pertsona adin nagusi guztiek parte hartu dezakete, baita gurasoen edo tutoreen idatzizko baimena aurkezten duten adingabe guztiek ere. Lehiaketa honetan parte hartzeak bere oinarriak onartzen direla esan nahi du.

GAIA

Parte-hartzaileek 2018ko abuztuaren 11tik 18ra bitartean Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko 55. Lehiaketaren baitan eskainiko diren ikuskizun piroteknikoetan egindako argazkiak bidali behar dituzte. Aurkezten diren argazkien artetik egokiak direnak aukeratuko ditu antolakuntzak, kontuan hartuta planteatutako gaiarekiko egokitasuna eta bete beharreko gutxieneko irizpide tekniko batzuk.

OBRA

Lehiakide bakoitzak 3 irudi bidal ditzake gehienez ere.

NOLA PARTE HARTU?

Kamera digitalarekin egindako argazkiak aurkeztu behar dira eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- Argazkiak JPG fitxategiak izango dira.
- Argazkiak bertikalak izan behar dute (100x140cm-ko proportzioan). Alde handienaren tamainak gutxienez 4720 px 300 ppi-ekoa izan behar du, eta RGB kolore espazioa gomendatzen da.
- Ukitu xumeak besterik ez dira onartuko, hots, kontraste, distira, kolore eta abarren doikuntzak. Ez da inola ere onartuko jatorrizko irudikoak ez diren edo horiek ezabatzen dituzten elementuak dauzkan irudirik edo fotomuntatzerik. Horretarako, epaimahaiak ahalmena izango du egokitzat jotzen duenean jatorrizko fitxategia aurkez dadin eskatzeko.

IDENTIFIKATZEA ETA BIDALTZEA

Parte hartzeko www.donostiakultura.eus/astenagusia, webgunean sartu eta parte hartzeko formularioa bete behar da. Parte-hartzaileak datu hauek adierazi behar ditu:

- Lehiakidearen izena eta abizenak
- Harremanetarako posta elektronikoko helbidea
- Harremanetarako telefonoak
- Irudiaren izenburua eta Donostiako zein tokitatik ateratakoa den

Argazkiak Wetransfer bidez donostiakofestak@gmail.com helbidera bidali beharko dira.

IRUDIEN ERAKUSKETA

Donostia San Sebastián Festak unitateak aurkeztutako irudien hautapen bat erakusteko eskubidea du. 2019ko Aste Nagusian antolatuko litzateke aipatutako erakusketa.

ONARTZE DATA

2018ko abuztuaren 22ra arte jasoko dira originalak.

EPAIMAHAIA ETA EPAIMAHAIAREN EPAIA

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kideek osatuko dute epaimahaia.

2018ko irailaren 12an (asteazkena) argazkiak eta irabazleen izenak www.donostiakultura.eus/festak webgunean argitaratuko dira.

Epaimahaiaren ustez ez bada kalitate nahikoa duen lanik aurkeztu, sariak eman gabe geratuko dira.

Epaimahaiak kontuan hartuko dituen ebaluazio-irizpideak argazkiaren sormena eta kalitatea izango dira. Epaimahaiak erabakiko ditu irabazleak, eta bere epaia behin betikoa eta apelaezina izango da.

SARIAK

Hiru sari banatuko dira:

1. Lehen saria:

Irailaren 14 eta 15ean Donostiako Hipodromoan ospatuko den Donostia Festibalarako bono bikoitza eta 2 pertsonarentzako afaria. (EUSKALTELEk eskeinitako saria)

2. Bigarren saria:

2 pertsonarentzako afaria. (EL DIARIO VASCOk eskeinitako saria)

2. Hirugarren saria:

La Perlako sasoiari jartzeko talasoterapia zirkuiturako 2 bonu. (LA PERLA Talaso Sport-ek eskeinitako saria)

IRABAZLEAREN IZENAREN PUBLIZITATE ERABILERA ETA DATUEN BABESA

Donostia San Sebastián Festak unitateak saria irabazleari ematearekin batera, irabazlearen berriazko baimena lortuko du bere datu pertsonalak erabiltzeko eta tratatzeko, sustapenaren emaitzaren publizitatea egiteko helburuarekin; horrela, bere izena eta irudia erabili ahal izango ditu eta egileak ez du ordainsaririk edo etekinik lortzeko eskubiderik edukiko. Lehiaketan parte hartzeko klausula hau onartu behar da.

ARGAZKIEN GAINEKO ESKUBIDEAK

Donostia San Sebastián Festak unitateak eskubidea du (eskubide ez-esklusiboa) aurkeztutako irudiak informazio- eta sustapen-euskarrietan askatasun osoarekin erabiltzeko. Edozein kasutan, irudiak ez zaizkie hirugarreni lagako, egileak espresuki baimentzen duen kasuetan izan ezik. Parte-hartzaileen erantzukizuna da beren lanen gainean hirugarrenek eskubiderik ez edukitzea. Antolatzaileek, beren aldetik, konpromisoa hartu dute irudi bat erabiltzen den bakoitzean egilearen izena adierazteko.